

# RIKARDO ETXEAN GIZONA

Nolakoa zan Rikardo etxean?  
 Askok eta askuk Jainko dute.  
 —Etxetik kanpora hainbeste lan egindako ume hura, nolakoa zan etxean?  
 —Horra, bada. Etxetik kanpora langille bazan-ta, etxean langilleago. Bero Ekonomika-Estudio-saios gainera, bere Alfabetatze-lanetarako prestakizunak, eta bere «ZERUKO ARGIRAKO» betiko bi edo iru artikulak. Besteak beste. Beti lanean.  
 Hori bai; bein ere hortarako inor molestatu gabe. Ixil-ixillik, bera bere gisa. Eten gabe.  
 Amaika bider, haren eskribitzeko makinaren tiki-taka azkarra entzunik nago ni, aren nerearen aldameneko gelatik: edozein ordutan; egun argiz, edo «gabean-gaberi», aren makinaren eten-gabeko tiki-taka ots azkar hura...

Baïnan bai baït zekian, seme onari dagokion bezela —lana bukatutakoan, edo betiko laneaz aspertutakoan— salto bitan sukaldera jexi eta amarekin itz-asportu bat eginaz egoten ere... amaren pozkarri, ta bere buru nekaturaren aringarri...

Otordu-garaietan, maïean gure Rikardo, beti bere puntuan, inor berari itxedoten euki gabe. Aidiz ixil, aldiz iztan. Bein ere ez, ordea, hark, maïean jakinduri-jardunik. Semideakin beti broma, beti alai...

Baïnan Rikardo'ren bizitzan, neretzako orduak ezin ahaztutena —gure Berrozpeko Eiztan jaunartzen ikusten nuanaz gain— beti ere beste egunoroko ordu bat izaten zan: etxeko oitara zaharrek Errosario-ordua: ilunabaruko, afal-aurreko Errosario Santuaren ordua.

Hortarako deia entzun bezain laister, lan danak bertan behera utzita, an jexiko zan gure muilla, salto bitan beriz ere, bere gelatik sukaldera. han mutur batek bestera, joan-etorri, joan-etorri, «Agurmariak eta Agurmariak» gurekin batean —uitzitan lanaz distraitu-antzean— esan eta esatera...

Hoi-etxek dira, nere baitan, bein ere azutzeko gogoan eukiko ditudan, Rikardo'ren, etxeko oroitza-penak: haren eten-gabeko makinaren tiki-takakoa, eta aren Errosario Santua esateko, sukaldere batek besterako ibilli distraitua...

Eta... ezin degula sinistu, berriz ere, noiz-nai, hemen, gure artean ikusi behar ez degunik... Ezin sinistu.

LEKUONA'TAR MANUEL

# RIKARDO ETA KULTURA

Eskena-gisa, apunte batzuk bakarrik eman nahi ditut. Luzatu eta borobildu litezke. Baina gaur eta hemen ezin ditut.

Rikardok euskal kultura gertutik ezagutzen zuan. Hortan ibilharen esperientzi jakingarria zeramakian.

Eta Rikardorentzat, kultura ez zan bere burua edo azaltzeko bide errez bat. Eginkiztan eta betebehur bat zan, hori bai. Ez dut dudarik.

Euskal kulturak hiltzoria gañduta zezan, jakintza-planifikatzen bat eskatzen zuan. Planifikazio bat, arrisku galgarri baterik gure kultura behin betirako libratzeko: espontaneismotik, alegia. Eta espontaneismoa zer dan, programa baten arabera lan egiten ez danean, nork ez dakit?

Euskal kultura, Rikardorentzat, aurreraria izanen da, ez du bestela aurrerapidirik. Ez da iriziti txoro bat, ez eta snobzuleria bat. Zer-gatik, bada, aurreraria? Hara: konsebitza baino gehiago lortzea, estiguna bilatzea; beste kultura nagusi maila iristea, dalako gure lehen arazoa. Lehengoan gaur nola ez, baina geroz gauzatzeko lanabes egokia litzekizanta ez baldin badugu egiten, orduan litzekizanta horrek ez du ogeigarren mendean biratzeko eskubiderik. Printzipio oro-

karra dana, gure Herrira ekartzeko bildurta egiten gaituala ematen du. Baina burua lurpean ezkutatuaz, arazok ezin ditzeke usa. Horregatik zerabiltzan Rikardok eskuarte-kokura-lana.

Kulturalismoaren arriskua ere ezaguna zitzaion. Honen aurka didaktismoaren harmak hartu zituan. Bi adibide soilki jarzearren: JAKIN 35-eko Marcusei buruzko bere "Eguzkialdeko ize hoiak" eta urteetan zeramakian alfabetatze-kampaina hori nola esplikatu ditzeke bestela?

Alfabetatzea aipatzean, ezin dugu ahaztu ekintza honen sustraiak, jakintza-infrastruktura, esan nahi dut. Maiz niitziatu ginan honaz. Gure artean, alfabetatzeak eta ikastolak erosten dute batez ere infra-estruturara hori. Eta hain zuzen irizitekiat bat lanu Herrian ezar-namitu zedin, alfabetatzeari ekin zion buru eta bihotz Rikardok. Ba dakigu lorbide hontan egile eta eragile borrokalariena bera izan za-lan.

Bukatzeko. Nik daramakidan lanak ez dakit zenbat balio dezaken. tan ez?) Rikardok asko lagundu zit-dala aitortu nahi dut.

JOAN MARI TORREALDAY

Gure Rikardo zana gazte urdurizat hartzen zuten butzuek, besterik ez. Baina Rikardo gizon osoa eta heldua zan, benetako. Arego, egiaz esan dezakegu herri-aren batean holako gizonak ez direla agertzen, behin edo behin besterik.

Laburra izan bada ere, bere biziak ekarri onak eta susoiak izan zituen ta, Rikardoren izena urte askotan maitasunez oroituak da Euskalerrrian.

Adimen indartsua ta argia zan Rikardorena, eta argidura hau sail askotan azaltzen zan. Aspaldi hortan, izan ere, matematika ikaskintzan laguntzen nion nik. Batzutan harriturik gelditzen nintzan bere "poder de sintesi" egiztazean. Teoria bat agertzen zue-nean, onarriak eta elburuak erakusten zituen aspratik, argi izugarrikin. Oso gutxi daude, matematika ikas-leen artean, horrela egin ahal dutenak. Matematikaz-zaile handia izan ahal zitekean, izan nahi ezker. Baina berak, hameroak ez, gizonak eta gizarteak maita-tzen zituen batez ere.

Bi kualidade zituen, guztiz maitagarri egiten zute-nak, garbitasuna eta prestutasuna edo eskuzabatasuna alegia.

Garbia zan gure Rikardo. Poza eman zuen berekin har-emanak izateak. Beraren atsegin eta irabaziak ez ziran inoiz sartzen bere asmoetan. Bestaldekik langile izugarria genuen, ezin sinisteko. Herriaren alde eki-teko beti prest.



Arazo berri bat agertzen zunean bere buruaz ahaz-ten zan eta berehala lanean zentuen.

Erlifjo saïlean oso gizon serioa zan, aste dudanez. Bere kezkek, egiazkoak eta sakonak ziran. Azuleko er-lijioa, mitoko eta sasi irudipenak igutu zitzaizkion.

Benetan, egiazko Jainkoaren bila zebilen beti, be-gi ta bihotz garbikin.

Jainkoak berak, misteriozko Jainko Horrek, hartu digu. Gurea baino zoroitsuagoa da orain gure Rika-rdo lastanaren izpiritua.

CARLOS SANTAMARIA

# Rikardo Arregi pentsalaria Bere lanak eta berari buruzkoak

Gaurko pentsalari bibaina, gazte egialari baltosa, euskal kulturaren arduraz eta bere etorkizunari laket, eskeintza osoa emanez zijoana hil zaigu: Rikardo Arregi.

Baina gure herriarekin ez-ozik munduko prolema ta kezketarik egunean egungoa ausnartuz bizi zan gazte keimentsua. Oraindik tinta freskoa nabari dute munduko prole-maz ZERUKO ARGIA-ren Herriak eta gizonak eta JAKIN-en Marcuse-ri buruzko Eguzkialdeko haize hoi-ek... izenekoa saiakera.

Munduak berakin azaltzen duen molde eta uste zaharrak aztertu ta berritzeko egarria agiri duen ordu honetan, hauen arduraz kezkatu iri zikan gure gaztea. Zeren, era guz-tietako konzetuen errebisioa esko-tzen dan egunetan, hain kezkatu ze-na ezin zitekean lo egon. Bere abu-ruak murgildu zituen gizartearen go-ruen mailako pentsameneatik. Bere-kiko, amaika krisis garaitu beharra izan zuen, zentzuez eta bihotzez, ausarti, argiaren bila. Zentzun ba-kaneez, jakin-min sakonez eta kon-zientziara garbit. Errotik aztertu ere, bere pentsamena gazte askoren gi-dari agertu zuen honek. Izan ere, amaika gazteren bideak iriki zituan gure alorrean.

Bere izatez honela zelarik, uste gabeko heriotzaren mugan sufrimen-durik izan ez bazuan ere, bizitza ze-har anitz sufritu beharra tokatu zi-

tzaion. Euskaltzaleoi aspaldiko ego-erak ematen digun guztira espiri-tualetik aparte, uste zaharrak berri-tzean, hainbeste aldiz, argi bila, be-re konzetu bideak hautsi beharrean arkitu zan; eta gizonarentzat zer su-frimendu handiagorik?

Baina, beste batzuek idatziko di-tuzte bere gozemenak, eta bere zentzuna hain praktikoa zanez, bere erakusbideei jarraikiz, uste honetan, egintza bidezko zenbait proposamendu egin nahi nituzke bere gogoari leialki erantzuteko.

Rikardo zanak ohorerik handienak merezi ditu, bere izakerarekin ados letorkean omena. Bere nortasuna onduen erakusten duena, bere lana izaki, eta gazte askoren ikasbidera-ko biltzea komeni zaigu. Alde batek-berik bere lanak eta pentsaerak azter-tuko nituena, eta bestalde idatzi-aren bilduma osoa:

1) Saiakerazko liburur bat bere bizitza laburki emanez, perfidismu ekintza, pentsalari bezala jarraitu zuen eboluzioa, euskera eta euskal kulturari buruzko irizitziak, politika internazionalaz zituen irizpideak, euskal alfabetatze lanen asmo eta eragintza, eta abar, zehatz-mehatz estudiatuko dituen saiakeraz horni-tutako bilduma. Bere idazlan eta hitzaldiak lekuko. Lan hau, behar bada, berek hainbeste saiakera ar-gitara zituan JAKIN-en zenbaki be-re-zi batean eman ditek.

2) Bere lan guzien bilduma ar-gitaratzea, lehenengotik azkenera, bere ekintza eta pentsamenaren go-ra-beherak argi agertzeko. Bere bi-zitzan, gazte askorentzat bide iriki-tzaile izan dalarik, bere hiltzuruko eragile izaten jarrai bedi. Hemen sartu ditezke zenbait hitzaldi eta lan argitara gabek, baldin argitarara ga-berik bada. Lan argitaratuak, gehie-nak, badakigu Zeruko Argia eta Ja-kin-en dituala eta biltzea ezta hain nekeza izanen. Lanok, bere ordenu kronolojikoan gaeiz sailka jarriaz; esate baterako: Nazio arteko ustea, Herriak eta gizonak, Saiakera (he-men, JAKIN-en argitaratuak behini-pehin), Euskal kulturari buruz (zen-bait hitzaldi, lan eta artikul bere-zi) eta, bukaeran, Orotarik, gaine-rrako ondakinak bilduko dituen saila.

Honela, lanok, lekuzko bikaina izan-go lirake gazteen artean ekintza suspertzeko. Izan ere, beste inor bai ete hain urte gutxian hainbeste lan egin duenik? Nork pentsa hoge-tasei urterako horren beste lan bu-rutu zitekeanik? Har dezagun barne-gogoz egin dezakeanaren isplu.

Holako zerbaït oinharri harturik, JAKIN taldeak edo batzorde bat jarri behar luke antofamentarako. Bere lanok aurkeztuaz, bere herriaren ome-nezko jaialdi bat eratzea ere bai, gure artean bere gogoak bizirik iraun dezan.

JUAN SAN MARTIN

# Euskal Alfabetatzea Rikardo gabe

«Euskal Alfabetatzea» umezurtz gelditu da. Euskaldun guztiak bezala, dolu ezkilaren soinu latzak mantu bidez ixil batez esialti gaitu gu ere, Rikardo-ren zuzendaritzapean ari ginen alfabetatzaileok.

Euskaldunak alfabetatu. «Izan ere, zertarako balio dezake zenbait euskaldunek euskerazko idazlan manu-tsurik egiteak, baldin Herriek beragantzen ez badeu kultura-ekintza hori?»— esan ohi zuen.

«Gure Herriar kultura-infrastruktura bat moldatu behar dugu».

Eta ari ginen.

Herrialdetako ordozkariek eta berak zuzentzen zuten Donostia-ko batzordeak bi Biltzar Nagusi egin genituen: Donostian eta Eibar-en. Berioetan Euskal Alfabetatzearen Araudi provisionala onizat eman zan.

Bizkaia ta Gipuzkoako zenbait herritan alfabetatze kanpaina egin dira surten.

Oraïn dela bi ilabete Donostian, lokal bat alkilatu genduen... (algebra, bestelako diru faltaz, oraingoz Arregitarrek ordaintzen zutelarik). Propagandarako materiala, karpetak, artxiobak... hantxe ditugu. Bulego Koordinatzailearen egoitza hantxe ari ginen antolatzen. Hau dena, noski, Rikardo-k gogotsu ta sendo zuzentzen zelarik eta A. Irigaray jaunak Euskaltzaindiaren baba-sa ofiziala eskeintzen zigularik.

Asmorik sendoenak datorren urterako genituen: di-ru laguntzarik lortzen baganduen, propaganda bideak sendotu ta gehitu: irratsaiolak, paskinak, esku-pape-rak,

festibalak... Herrialde bakoitzean alfabetatzaile sail be-riarrik eratu. Bigarren mailako alfabetatze ekintaldia be-riariko testo berriak aukeratu ta inprimatu... t.a. «Gal-lurreraino irixi behar gaituk», esaten zuen Rikardo-k.

Oraïn hutsune ikaragarri bat, lehen lema trinkoa ze-goon hartan.

Lehengo ostiraleko arratsalde eguzkitsua bai arrats-alde iluna. Andoain-en bildu ginen edota beren bi-zilekuetan gelditu ziren euskaldun askoren barrun-be-tan esan-ezin-halako pena. Bainan, pena hontan sus-traiturik, baita asmo irmo bat ere: «Hik landutako alo-rrean jarraituko diagu guk ere, Rikardo, nola edo hala».

Euskal Alfabetatzea or horontako hilda nagusi bat da.

Guri, Euskal-Herri guztiko alfabetatzaileori, dagoki-gu hortan jarraitzea.

Datorren urteak zinez «gailurra irixteraino» be-har du izan. Hortiarako bideak denon artean tajatu be-har: Euskaltzaindia, Herrialdeetako ordezkariak, Do-nostia-ko taldea, alde guztietako laguntzaileak.

Eginkizun hau burutan ateratzea da Rikardo-ri egin dezaiokegun omenaldirik onena, besteak beste. Rika-rdo-ri omena eta gure Herriari sarbitzua: haren nahia ta honen ona bat baiziren, ez bi.

Izan bakigu bere gomuta samina indar eta ahia ta Agur, Rikardo «joan zaitzaizugu lurretik, baina ez gogotik, eta ez bihotzetik».

ZENBAIT LAGUNEK

